

AZKEN BERRIAK ABENDUA IV

ERTZAINTZAREN KONTSEILUA 2011/12/22

Merituetako baremoen agindu proposamena onartua izan da, Administrazioaren eta ESANen aldeko botoarekin soilik, ondorengo aldaketa hauek jasotzen dituelarik:

- Antzintasuna zenbatzeko hasierako epea, ikastegitik irten zenekoa izango da.
- Goragoko mailako funtzioak eginez betetzen den lana berezko maila bezala baloratuko da.
- Puntuazioa izango dute Helikopteroko pilotu, argiketak eta trafiko ikastaroeak.
- Musika bandako zuzendari eta zuzendari ondoko lan-postuak deitzen dira.

Lan-postuen horniketarako deialdiaren ebazpena onartua izan da sindikatu guztien kontrako botoarekin eta Administrazioaren aldeko botoarekin.

GALDE-ESKEAK

VD/VG.- Sailak berresten du zeregin hautako pertsonalari inposatzen zaiona: HSkoak izango dira, zeregin bat gehiago izango da-eta. Ikerketako CES galtzeak lekarkeen arazoaren aurrean, esaten du dirua gal ez dezaten “ereduaren bila” dabiltzala. Orain artean zeregin hauek egiten dituen aurrerantzean ere jarrai dezake berdin egiten.

SEAT ALTEA.- Eskuratzea atzeratu egin da IATa dela-eta, baina arazoa konpondua dago eta urtarilean hasiko dira jasotzen. Lehenengo Erandion eta ondoren gainerako Unitateetan.

LOIOLAKO GERTAERA.- Zauritutako lankidearen egoera administratiboari buruz, Sailburuordeari azalpena eskatu diogu. Erantzuten du zerbitzuko-egintzatzat onartua izan dadin behar den prozedura hasteko agindua emana duela, eta baita, jasan dituen kalte fisikoak direnak direla ere funtzionario izendatzea burutu dezaten.

Gertaera bera kontuan hartuta, etorkizunean izan daitezken aktuazioak zuzentzeko helburuarekin, gertatutakoaren azterketa burutzea eskatu dugu eta ondorioak eman gaitzela.

BUZOAREN BERRITZEA.- Azpiegituraren zuzendariak dio laster arazoa konpondua izango dela eta izan diren banakako arazoei irtenbidea emango zaiela.

TIA eta KPA EZOHIZKO HABOROKINEN ITZULTZEA.- Aurreko bi negoziazio mahaietan ukatu baziren ere, orain okerra zuzenduz nominan deskontatu zirenak ordainduko direla diote, horretarako legezko formula bideratuz, baina etorkizunean ez direla ordainduko. Ebazpen bat argitaratuko dute arazoari irtenbidea emateko.

JAGOLEEN JANTZIAK.- Berresten dute faktura bidez bakar-bakarrik balio duela, eta ondorioz beste edozelango frogagiriak atzera botako dituztela.

GOOGLE.- Hegoaldeko saihebidetza berriko autobidea eta bidesaria ez da agertzen, beraz, gastuen kitapena atzera botatzea berrikusiko dute.

TRAFIKOKO PREBENTZIO GEHIKUNTZA.- Trafiko prebentziorako %15 arterainoko igoeraren ezarpena salatu dugu. Izan ere kontrolen gehitzea ekar lezake, alkoholemiakoak batez ere, baliotsuenak izanik hauek, eta Unitate bakoitzaren esku



Azalpen Orria

2011-12-27



erabakia uztearen aurka. Erantzuna laburra izan da: “53. Agindua betetzen bada dena ondo dago”.

LAPURRETA SUSMAGARRIEN GUTXITZE KONTROLAK.- Salatu dugu kontrol hauen ondorioz, gune guztia bertan behera utzita gelditzen dela, barruti osorako gelditzen den patruila bakarrarentzan honek ekartzen duen segurtasun gabeziarekin. Erantzuten dute, begiratuko dutela, baina uko egiten die buruzagitzak egiten dutena ondo ala gaizki dagoen erantzuteari.

MURRIZKETAK.- Eusko Jaurlaritzak ezarri nahi dituen neurriak, GGBBko zuzendariak dio, ez diela hitzartutako osagarriei eragingo. Erregimen Juridikokoan erabateko gelditzeari errua botatzen dio hitzarmenen argitaratzearen atzerapenari.

LAN PREBENTZIO ETA OSASUNAREN BATZORDEAREN BILERA 2011/12/20

Lan-postuen arriskuei buruzko balorapen berria egiten hasi da, eta horretarako balorapen batzorde bat osatzen da Prebentzio-ordezkariz osatua eta sindikatu bakoitzeko ordezkari batek parte hartu lezake. Azterketa hiru hiriburuetako ertzain-etxetan hasiko da, jarraituko die erdi mailako hiruk eta maila txikiko hiruk, beti herrialde bakoitzetik bat. Aurretik egindako balorapenaren berrazterketa izango da. Orain arrisku biologikoak eta psikozozialak gehituz.

Prebentzio Alorretik eskatzen duenarekin lotuta Teknika Alorraren kudeaketa txarra salatu dugu, ez bai dute kexa eta erreklamazioetan eskatutakoei erantzuten, eta sarri, egiten dutenean, prebentzio-zerbitzuko teknikoei gomendatzen dutenen aurka gainera.

LAZLZ GIPUZKOA.- Herrizaingo Sailaren eskumeneko eraikina ez dela esanez ematen duten erantzunaren aurrean, eta Osakidetza erantzun ezaren aurrean, arazoak direla-eta (aldagelak, kableatua...) OSALANen salaketa ipintzera behartzen gaituzte.

DONOSTIA ARMAIRUAK.- Erantzuten dute daudenak arauzkoak direla eta handiagoak ezin dituztela ipini leku gabeziagatik.

AIREZTATZE SISTEMA BERGARA.- Azaroan konpondu zela esanez emandako erantzunaren aurrean, salatzen dugu egin dutena egiteko ez dela profesionala izan behar.

PANTAILAK.- Exijitzen dugu bete beharreko atsedanak egin daitezela horretarako behar diren neurriak hartuz edo OSALANen salatuko dugula hauek ezar dezaten.

OIKI1 EGINKIZUN-ZERBITZUAK SESTAO ERTZAIN-ETXEA

OIKI1_berezitasunezko oinarritzko eskalako agenteentzat 5 lan-posturen deialdia. Epea urtarrilak 2 (Ikusi erantsitako fitxategia)

EGINKIZUN-ZERBITZUAK HS MIÑOIAK

Berezitasun gabeko oinarritzko eskalako agenteen 10 lan-posturen deialdia, Herri Segurtasuneko Alorrean eta EE-EE lan egiten dutenentzat. Epea abenduak 30 arte (Ikusi erantsitako fitxategia)

1 HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Frogarako behin betiko onartu eta ez onartuen zerrenda (Gurenet)

KOMISARIO ONDOKO PROZESUAREN BUKAERA

Behin betiko emaitzen hitzarmena argitaratu da, eta deialdian sartzen diren pertsonen zerrenda. Errekurtsoak egiteko epea 2012ko urtarrilaren 21rarte.